

Zer egin dezakegu Durangon osasunaren eta berdintasunaren alde?

Txostenak atal hauek izan behar ditu:
(6 orri gehienez; eranskinak kontuan hartu gabe)

1. Azala

Zuen proiektuari eman nahi zaion titulua eta aurkezten duen taldearen izena jaso behar ditu.

2. Proposamenaren deskribapen laburra (7 lerro, gutxi gorabehera)

3. Proposamenaren helburuak

Jarduerekin lortu nahi dena

4. Justifikazioa eta testuingurua

Azaldu zergatik den egokia, interesgarria edo beharrezkoa jarduera hauek Durangon egitea, ideia nondik datorren, aurrez antzekorik egin ote den, zerekin duen lotura, zein den motibazioa, zer arazo, eskaera, errealitate edo hutsuneri erantzuten dion, zer eraldatu nahi duen...

5. Jarduerak

Ahal den neurrian eta egokia bada, zehaztu:

Ekintzen deskribapena

Nork egin, zuzendu edo dinamizatuko ditu ekintzak

Nork parte hartuko duen

Ekintzak nori zuzenduta egongo diren

Inplikaturako elkarteak, taldeak, hezkuntza zentroak, erakundeak, komunikabideak, herri mugimenduak etab.

Baliabideak: ekintza non egingo da, zer material beharko da ekintzak aurrera eraman ahal izateko, etab.

6. Eranskinak (Ez dira beharrezkoak, baina aurkezteko aukera dago)

Proposamenak irizpide hauen arabera ebaluatuko dituzte epaimahaikideek:

Helburuak (15 puntu)

Proposamenaren lotura medicusmundi Bizkaiaren misioarekin (15 puntu)

Gaia zergatik den egokia eta interesgarria Durangon (20 puntu)

Irismena, eragina eta partehartzea (30 puntu)

Jardueren bideragarritasuna, egingarria den (20 puntu)